



EBAZPENA, 2008KO AZAROAREN 26KOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, "TELEFONIA MUGIKORRA EUSKARAZ" IZEBURUPEAN, IRAGARKIAK HAINBAT EGUNKARI ETA IRRATITAN TXERTATZEKO ZERBITZUA BEHIN BEHINEAN ESLEITZEKO DENA (K-54/2008 ESPEDIENTEA).

GERTAKARIAK

LEHENENGOA.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko azaroaren 4ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-54/2008 espediente onartu zen, esleipen prozedura bezala publizitaterik gabeko negoziatua erabiliz, Alor Publikoko kontratuen Legeko 158 e) eta 162.1 artikuluekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Espediente horretarako, eta egindako gonbidapenen arabera, Kultura Saileko Erregistroan honako enpresa hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

- MEDIASAL 2000 S.A.: 2008/11/24 datarekin iritsitako fax bidez, eskaintza korreoz bidaliko zutela adierazten dute, epe eta modu egokian, beraz. Eskaintza korreoz iritsi da 2008ko azaroak 26an, erregistro zenbakia: 887992.
- ZOSMA MEDIA, S.A.: 2008/11/25 egun eta 9:18 ordutan iritsitako fax bidez, eskaintza korreoz bidaliko zutela adierazten dute. Epe eta modu egokian, beraz. Eskaintza korreoz hilak 26an iritsi da, 888016 erregistro zenbakiarekin.
- PROPAGA (Publicidad Hedatu SLU): Eskaintza korreoz bidali zuten 2008/11/25an goizeko 8:51ordutan, 882720 erregistro zenbakiarekin. Epe eta modu egokian, beraz.

HIRUGARRENA.- 2008ko azaroaren 26an egindako bileran, Kontratazio Mahaiak, aurkeztutako enpresen kontratatze gaitasuna aztertu eta gero, hiru enpresen "A" gutun azalean aurkezturiko agiri guztiak balekotzat jo ditu.

LAUGARRENA.- onartutako enpresek egindako eskaintza ekonomikoa honako hau izan da:

Enpresa	Proposamena (BEZ gabe)	BEZ (€)	GUZTIRA
ZOSMA MEDIA S.A.	51.688,30 €	8.270,14	59.958,47 €
MEDIASAL 2000 S.A.	51.305,16 €	8.208,82	59.513,98 €
PROPAGA (Publicidad Hedatu –SLU)	51.708,55 €	8.273,37	59.981,92 €

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENEGOA.- Koordinaziorako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek enpresek aurkezturiko dokumentazio teknikoa eta eskaintza aztertu eta baloratu dituzte, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA.- Koordinaziorako Zuzendaritzak egindako txostenetan kontratua MEDIASAL 2000 SA enpresari esleitzea proposatzen da, oro har hartuta egokia delako administrazioaren interesei begira, ikuspegi tekniko batetik aztertuta.

HIRUGARRENA.- MEDIASAL 2000 SA enpresak zuzen egiaztatu ditu bere gaitasuna eta kaudimena, bai eta eskatzen diren gainerako betekizun legezko eta formalak ere.

LAUGARRENA.- 2008ko urriaren 31an kontratuari dagozkion obligazioei aurre egiteko kreditua kontsignatu da 08 0 1 10 23 0000 1 236 01 47113 000 M aurrekontu partidan.

BOSGARRENA.- Prestazioaren izaeraren ondorioz, expedienteak Publizitatearen Sailen arteko Batzordearen baimena behar du.

SEIGARRENA.- Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 153 artikulua eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i artikulua kontratazio alorreko hainbat eskumen ematen dizkirate.

Baldintza-agiriak, espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi dira, eta kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren proposamen-txostena eta Kultura Sailaren Kontratazio Mahaiaren erabakiak. Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

LEHENGOA.- MEDIASAL 2000 SA enpresari (IFZ A-48944268) esleitzea behin-behinean "Telefonia Mugikorra Euskaraz" izenburupean, iragarkiak hainbat egunkari eta irratitan txertatzeko zerbitzua kontratatzekoa (K-54/2008 espediente), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera eta



51.305,16 €, eta 8.208,82 €, BEZen kontzeptuan, esleipen kopuru guztia 59.513,98 € izanik.

BIGARRENA.- Behin-behineko esleipendunak 15 lan-eguneko epean, ebazpena kontratantearen profilean argitaratu eta ondorengo egunetik kontatzen hasita, baldintza berezien pleguko 20. atalean adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, bertan dagoelarik behin-betiko bermea jartzea Euskal Herriko Diruzaintza Orokorren aurrean urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 84 artikuluan adierazten diren moduetan, kasu honetan kopurua 2.565,28 € izanik.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau publikatu kontratantearen profilean, www.euskadi.net, eta esleipen prozesuan parte hartu duten enpresei jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Ebazpen honek ez du administrazio bidea bukatzen eta, hortaz, gora jotzeko errekurtsioa jar dakiogkeela Kultura sailburuari, hilabeteko epean idazki hau jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 26a.

JOSEBA LOZANO SANTOS

Herri administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaria

Kultura Sailaren egitura ezartzen duen otsailaren 14ko, 25/2006 Dekretuko, lehenengo xedapen gehigarriaren arabera Hizkuntza Politikarako sailburuordearen absentziagatik.